

1955-II-25

Donostian, milla bederatzireun eta berrogetamaboskarren urteko Otsailaren ogetabostean Ekauta-jauregian, Etxaide jauna maipuru dala ta Irigarai, Villasante, Mitxelena ta Oleaga euskaltzainak eta Lojendio ta Arrue Euskaltzainordeak etorririk egiten dau Euskaltzaindiak gaurko deituriko batzarra.

Araudizko otoitzaz asten da.

Lenaurreko agiria irakurri da ta ao-batez onetsia izan da.

Gero adierazo da Lafon Euskaltzain jaunak bere lantxo bi bidaldu dabezala: bata oraintsu Baionan egindako Eusko-Jakintza batzarrean aurkeztua "Sur l'usage de la langue basque actuelle dans l'interprétation des toponymes" azalburupean eta "Revue Internationale d'onomastique" aldirokoan agertua; eta bestea "Phrases et expresions basques dans un villancico de Sor Juana Ines de la Cruz" deritxona "Bulletin Hispanique" aldirokoan argitaratua. Lan biok irakurri dira ta pozik entzunak izan dira.

Irigarai jaunak damoz Gorostiaga jaunaren barriak. Etxaide jaunak bere, Etxegarai jaunarenak, beronek bidaldiriko idazki bat irakurriaz.

Oraintsuko sari-batzaldira bidaldiriko lan sarigabetuak biurtu bekioez bakoitzaren egilleai.

Azkue izandako Euskaltzainburuaren Euskal-iztegiaren geigarria, lenago erabakita dagoanez, **Euskeran** alik arinen argitaratuteko egin bediz gertakuntza egokiak. Oleaga jaunaren lepora ezarten da zeregin au.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburu-ordea*  
J. M.<sup>a</sup> Etxaide

*Zadorlaria*  
Nazario Oleaga